

Etsai eraso, burruka latza,
 eguzki dirdairik bako!
 Uin-jauzika ots dagikanean
 dirudik itxaso arro.

Goitik gogoa zidar egalez
 dago jantzita: zerumin;
 aragia, irriks murkoa eskun,
 ikus beerago: ludimin.

Izanez bata ustelkor dozu,
 bestea barriz il-gaitza;
 lur ala gogok jādats ereño?
 norentzat ete garaitza?

Or dabilkidaz lera-sugeak
 biotz ganbaran txistuka:
 oillo samara mirotza letxe,
 jarkitzen alkar eztenka.

Aragiz azke dan gotzon argi
 edur egoduna iduri,
 lokiak ausiz ludi ontako
 beztun-arana itzuri.

Goira dot igon nai ego iraulka,
 jzarren isla mosutu,
 ta azkar garaituz ortze oztiña,
 argi erriaz jabetu.

Ango goiz-aize, oi!, nok leukake!
 Usno goitarrak arnastu,
 argi jturnan egarri sua ito,
 Jainko-besoan atsartu!

Baiña sugetzar marraskariak
 lei ardoz mozkor nakarre;
 ta ene gora miñak or epel,
 jllotzen taiua darre.

ATZIPETUA

Laburrak, ziñez, nire atsegin orduak!
 Joana az, ene maite, jbaia lez bizkor,
 ta ni oroiz betea emen, ai!, ezezkor,
 konta eziñik neure neke ta doluak.

Ez neban iñoiz uste, iñoiz, ez orixe!,
 egun artako argi lausorik bagea,
 ez, ez yatan iduri izan poz betea
 ain laster itzuliko yatanik oiñazei

Baiña iduri utsa zan, ames gaillena,
 nik olan jantzitako jauregi bikaiña.
 Nok ete onen erru? Ez iñok nik aiña.
 Lorea eder, ba'ña barruan edena.

Maite dardaiz josia ibilli naz zoro.
 Bizitz sua itxuratan zoragarri dozu;
 ezta, barriz, ispillua egiaren zitu,
 ta ni be aren mende nago, gaur, osoro.

Bai, lilluragarria az, elai arraparil
 Dana dagik erreza, zillegi, ederrik.
 Oi, ames gaizto! Ezpei, ez, ire esanik
 iñok betetu, izan nai ezik lotsari.